



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko apirilaren 18a

36. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Departamentuak ordain ditzan Osasunbideak aginduta osasun zentro batean erradioterapia, kimioterapia eta errehabilitazio tratamenduak hartu behar dituzten gaixoen garraio-gastuak, Iruñetik kanpo bizi badira. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza-neurrien sistema bat ezar dezan, familiek banda zabaleko internet-konexioak ezartzeko tresnak erosi ahal izateko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da protokolo bat ezar dezan arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emateko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, osasun garraioaren kudeaketa edo antolamendu eredu berriari heltzeko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen baitu Bigarren Errepublikak, Espainian antolamendu politikorako izandako lehen esperientzia demokratiko gisa. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez berretsi baita Gerra Zibilean Nafarroan fusilatutako eta errepre-saliatutako pertsonak gogoratzeko, omentzeko eta dagokien ordain morala emateko erabakia, Osoko Bilkurak onetsi zuena. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Unibertsitatetik edo Klinika Unibertsitariotik erretirora iragan diren pentsio-hartzai-leak artatzeko Osasunbideak eta Nafarroako Unibertsitateak sinatutako kontratuari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (12. or.).
- Galdera, Huarte Beaumont andrearen arte bilduma pribatuari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Antzerki Sarea abian paratzeari dagokionez udal agintariak duten parte-hartzeari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak arte eszenikoak bultzatzeko abian jarriko dituen ekimenei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen hurrengo urteetan antzez-arteetara bideraturiko diru kopurua handitzeko, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak artista nafarren promoziorako eta zabalkunderako eta publiko berriak bilatzeko dituen proiektuei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Toki Administrazioako Departamentuak gauzatu zituen administrazio-ekintzei eta legezketasun kontrolari buruzko ekintzei buruz, Iruñerriko Mankomunitateak Arazuriko biometanizazio planta eraikitze eta abiarazteko hartu zituen hitzarmenei dagokionez, José Luis Izco Biarge jaunak egina (16. or.).
- Galdera, kirolaren babeserako 2,8 milioi euroko kontusailari buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (17. or.).
- Galdera, 2004tik 2007ra larrialdi zerbitzuetan eginiko egintza medikoen kopuruari buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egina (17. or.).
- Galdera, A-12 autobidean animaliak sartzen direla-eta eragindako istripuei buruzkoa, José María Vázquez Royo jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Spanair enpresak Iruña-Madril hegaldiak eteteko arrazoi objektiboek eta erabaki horren aurrean hartuko diren neurriek buruzkoa, José M^a Vázquez Royo jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Xabierko Frantzisko Jatsukoa auditorioaren obrei buruzkoa, Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren aurreikuspenek buruzkoa, erizain laguntzaile izateko oposizioako lanpostu hutsak aukeratu ahal izateko. Galdera erretiratzea (20. or.).
- Galdera, jakiteko zenbat diru jaso den 2006an 250 langile baino gehiagoko enpresetatik eta 250 baino gutxiagoko enpresetatik sozietateen gaineko zerga dela-eta. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Zangozako osasun etxe ohiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer egiteko asmoa duen Leitzako Amazabal institutuaren ondoko eraikinarekin. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Mindak Europar Batasuneko zuzentarauen arabera tratatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Klima aldaketa aztertzeke lan-taldearen barne-funtzionamendurako arauak (24. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzekoa

Apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legeak, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 56.1.f) artikulua babesean, Nafarroako aurrezki kutxetako zuzendaritza organoak erregulatu zituen, aipatu entitateak demokraziaren bidean jartze aldera, haien kudeaketaren inguruan biltzen diren interesei leku emanez eta organoetako eskumenak zabalduz, espezializazio printzipioarekin bat.

7/1987 Foru Legeak kontuan hartu behar izan zuen, ezinbestean hartu ere, Estatuko arautegiaren edukia, hain zuzen ere Aurrezki kutxetako zuzendaritza organoei buruzko oinarritzko arauak erregulatu zituen 31/1985 Legeak ezarritakoa; izan ere, aipatu legezko xedapen horren azken xedapenetan laugarrenak haren edukia, hein handi batean, oinarritzko arau deklaratu baitzuen.

Aurrerago, Auzitegi Konstituzionalaren 1988ko martxoaren 22ko epaiak Konstituzioaren aurkako deklaratu zituen 31/1985 Legeko manuetako batzuk, hain zuzen ere foru arautegiaren antzeko edukia dutenak, eta lege horren edukietako beste zenbait, berriz, ez zituen oinarritzkotzat jo. Ordudunik iragandako urteak gorabehera, orain arte ez da 7/1987 Foru Legea aldatu, Auzitegi Konstituzionalaren aipatu epaiari egokitzeko.

Denbora horretan, gainera, zenbait alditan aldatu da hein batean 31/1985 Legea: abenduaren 27ko 24/2001 Legearen bidez, azaroaren 22ko 44/2002 Legearen bidez, abenduaren 30eko 62/2003 Legearen bidez eta apirilaren 22ko 5/2005 Legearen bidez. Aldaketa honek helburu

du 7/1987 Foru Legea egungo esparru juridikora egokitzea, baina baita Foru Komunitatearen egungo egoera politikora, ekonomikora eta sozialera ere, eta hura aplikatu ahal izatea, amaiera emanaz orain arteko salbuespen-aldiari, zeinetan Nafarroan arlo hori foru lege horretan xedatuaz bestela arautu baita.

Artikulu bakarra.

Nafarroako aurrezki kutxetako zuzendaritza organoari buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legeko ondoko artikuluek ondoko edukia izanen dute:

Lehena.

“8. artikulua. Osaera.

1. Aurreko artikuluan aipatu diren sektoreetako ordezkariak honako ehunekoen arabera banatuko da:

a) Aurrezki kutxako ezarleek kontseilari nagusien % 30eko ordezkariak izanen dute.

b) Aurrezki kutxako pertsona edo entitate sortzaileek kontseilari nagusien % 5eko ordezkariak izanen dute.

c) Udalerrri batean aurrezki kutxak bulego bat zabaldua badu, Udalbatzak kontseilari nagusien % 15eko ordezkariak izanen du.

d) Aurrezki kutxako enplegatuek kontseilari nagusien % 10eko ordezkariak izanen dute.

e) Nafarroako Parlamentuak kontseilari nagusien % 30eko ordezkariak izanen du, parlamentu-taldearen artean proportzionalki banatuta. Betiere, parlamentu-talde bakoitzak gutxienez ere kontseilari orokor bat izanen duela bermatuko da.

f) Izaera kulturala, zientifikoa, ongintzakoa, hiritarra, ekonomikoa edo profesionala duten korporazioek, elkarteek edo fundazioek kontseilari orokorren % 10eko ordezkariak izanen dute, baldin eta Aurrezki Kutxaren jarduketan eremuan ezarritako badaude, batez ere entitatearen jatorrizko jarduketan eremuan, ordezkariak sozial edo ekonomiko nabarmena badute eta aurrezki kutxen tamaina sozial edo sektorialarekin lotutako eremuetan jarduten badute. Entitate horien izena berariaz jaso beharko da aurrezki kutxaren estatutuetan.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuari eta kargua uzten duen kontrol batzordeari dagokien foru lege honetan agindutakoa betetzen dela bermatzeko ardura, kontseilari orokorrak hautatzeko prozesuei dagokienez.

2. Pertsona edo entitate sortzaileek dagokien ordezkariak erabiltzerik ez badute edo erabili nahi

ez badute, ordezkariak hori gainerako taldeen artean hainbanatuko da, kontuan hartuta administrazio publikoen ordezkariak eta zuzenbide publikoko entitate eta korporazioena ezin izanen dela izan, osotara, ordezkariak osoaren % 50etik gorakoa.”

Bigarrena.

“9. artikulua.- Kontseilari orokorren baldintzak.

Kontseilari orokorrek honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Pertsona fisikoa izatea eta Nafarroako Foru Komunitatean izatea ohiko bizitokia.

b) Adinez nagusia izatea eta ez egotea ezgaitua.

c) Zein aurrezki kutxatarako izendatua izan den, horretako ezarlea izatea, bi urtetik gorako antzintasuna izanik hautatzeko unean, eta, kargua onartzen duen unean foru lege hau garatzen duten arauetan ezartzen den gutxienezko gorako mugimendua edo batez besteko saldoa izatea kontuetan, baldin eta ezarleen taldearen izenean hautatua izan bada.

d) Aurrezki Kutxarekin bere kasa nahiz beste pertsona edo entitate batzuen izenean hitzartutako betekizunak bete izana.

e) Foru lege honetako 11. artikuluan ezarritako bateraezintasunik ez izatea.”

Hirugarrena.

“14. artikulua. Udalbatzetako ordezkarien hautaketa.

1. Udalbatzek zuzenean izendatuko dituzte beren kontseilari nagusiak, erregelamendu bidez zehaztuko den prozedura baten arabera, aurrezki kutxak bulegoa zabaldua duen udalerrietako udalbatzen ordezkari.

Udalbatza baten ordezkari bezala kontseilari nagusi izendatua izateko, foru lege honetako 9. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira, eta ezin izanen da 11. artikuluan adierazitako bateraezintasun kasuetako ezeinetan ere egon.

2. Toki korporazioek, baldin eta beste aurrezki kutxa baten jarduteko esparru berean edo hein batean berdinean lan egiten duen aurrezki kutxa baten sortzaileak badira, ezin izanen dute lehen-dabizikoaren ordezkariak izendatu.”

Laugarrena.

“22. artikulua. Osaera eta eginkizunak.

1. Administrazio kontseilua da aurrezki kutxaren finantzetako administrazio eta kudeaketa lanen

eginkizuna duen organoa, bai eta gizarte ongintza-
ren lanarena ere.

2. Kontseilariak ez dira hamaika baino gutxiago
izanen, ez eta hogeita bat baino gehiago ere.

3. Administrazio kontseilariren batek kargua
uzten badu edo haren izendapena atzera botatzen
bada, ordezkioak beteko du haren tokia gelditzen
den aldi osoan.

Ordezkaritza talde bakoitzetik, xede hauetara-
ko soilik, administrazio kontseilari adina ordezko
izendatuko dira, haiek izendatzen diren prozedura
bera erabiliz.”

Bosgarrena.

“23. artikulua. Ordezkaritza.

Administrazio kontseiluak guztien interesak
ordezkatuko ditu, eta lan horretan talde guztiek
hartuko dute parte, foru lege honetako 8. artikulua-
ak batzar orokorreko kideentzako ezarritako pro-
portzio eta ezaugarri berdinekin. Hala ere, bereiz-
kuntza hauek eginen dira:

a) Batzar orokorrak izendatuko ditu ezarleen
ordezkari izanen diren administrazio kontseilariak,
talde horretako kontseilari nagusiek proposatuta
eta azken horien artetik.

Ezarleen ordezkarietarako, talde horretako kon-
tseilari nagusiek hautagaiak proposatu ahalko
dituzte, guztira zenbat diren, kopuru hori zati zortzi
egitetik ateratzen den zenbatekoan gutxienez ere.

Dena den, behar diren profesionaltasun behar-
kizunak bete bai baina kontseilari nagusi izanen
ez diren bi pertsona izendatu ahal izanen dira,
gehienez ere.

b) Batzar orokorrak izendatuko ditu pertsona
edo entitate sortzaileen ordezkari izanen diren
administrazio kontseilariak, talde horretako kon-
tseilari nagusiek proposatuta eta beraien artetik.

c) Batzar orokorrak izendatuko ditu udalbatze-
tako ordezkari izanen diren administrazio kontsei-
lariak, udalbatza horietako ordezkari diren kontsei-
lari nagusiek proposatuta.

Talde horretako kontseilari nagusiek hautagai-
ak proposatu ahalko dituzte, guztira zenbat diren,
kopuru hori zati hamar egitetik ateratzen den zen-
batekoan gutxienez ere.

Izendapena udalbatzetako ordezkariak diren
kontseilari nagusien aldekoa edo profesionaltasun
beharkizunak betetzen dituzten hirugarren pertso-
nen aldekoa izan ahalko da, baina azken horiek
ezin izanen dira bi baino gehiago izan.

d) Batzar orokorrak izendatuko ditu Aurrezki
Kutxako enplegatuen ordezkari izanen diren admi-
nistrazio kontseilariak, talde horretako kontseilari
nagusiek proposatuta eta beraien artetik.

e) Batzar orokorrak izendatuko ditu Nafarroako
Parlamentuaren ordezkari izanen diren administra-
zio kontseilariak, talde horretako kontseilari nagu-
siek proposatuta eta beraien artetik, parlamentu-
taldeen artean aniztasun irizpideak aplikatuta.

f) Batzar orokorrak izendatuko ditu izaera kultu-
rala, zientifikoa, ongintzako, hiritarra, ekonomikoa
edo profesionala duten korporazio, elkarte edo
fundazioen ordezkari izanen diren administrazio
kontseilariak, talde horretako kontseilari nagusiek
proposatuta eta beraien artetik.”

Seigarrena.

“33. artikulua. Osaera.

1. Kontrol batzordeko kideen kopurua seitek
hamarrera bitartekoa izanen da, eta Batzar Nagu-
siak aukeratuko ditu administrazio kontseiluko
kide izaera ez duten bere kideen artean. Batzar
Orokorrean ordezkaturik dauden sektoreek ordez-
kariak izan beharko dituzte batzordean.

Administrazio kontseilarietzat xedatuari jarrai-
kiko zaio hautagaitzak aurkezteko.

2. Gainera, Nafarroako Gobernuak gaitasun eta
prestakuntza tekniko egokiko pertsonen artean
izendatutako ordezkari bat ere izan ahalko da kon-
trol batzorde horretan. Batzordearen bileretara
hitzarekin baina botorik gabe joanen da.

3. Aurreko idatz-zatian aipatu den Nafarroako
Gobernuaren ordezkaria kenduta, kide baten
kargu uzte edo izendapenaren atzera botatzea
gertatzen bada agintaldia bukatu baino lehen, kide
horri dagokion ordezkoak beteko du haren tokia
gelditzen den aldiaren. Ordezkaritza talde bakoitze-
an, soilik idatz-zati honetan aipatzen diren xede-
tarako, kide adina ordezko izendatuko dira, haiek
izendatzeko prozedura bera erabiliz.

4. Kontrol batzordeak batzordeburu bat eta
idazkari bat izendatuko ditu bere kideen artetik.

5. Kontrol batzordeak eskatzen duen orotan,
zuzendari nagusia bileretara joanen da, hitzarekin
baina botorik gabe.”

Xedapen gehigarria

1. Foru lege honek indarra hartu eta hiru hila-
beteko epean, Nafarroako Gobernuak legea gara-
tzeko eta aplikatzeko behar adina erregelamen-
duzko xedapen emanen ditu.

2. Erregelamenduzko xedapen horiek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, aurrezki kutxek beren estatutu eta erregelamenduak arau berrira egokituko dituzte eta Nafarroako Gobernuari igorri, onets ditzan.

Xedapen indargabetzailea

Indarrik gabe geldituko dira foru lege honi kontra egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak, eta berariaz geldituko da indarrik gabe Aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legeko xedapen gehigarria.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Departamentuak ordain ditzan Osasunbideak aginduta osasun zentro batean erradioterapia, kimioterapia eta errehabilitazio tratamenduak hartu behar dituzten gaixoen garraio-gastuak, Iruñetik kanpo bizi badira.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasun Departamentuak ordain ditzan Osasunbideak aginduta osasun zentro batean erradioterapia, kimioterapia eta errehabilitazio tratamenduak hartu behar dituzten gaixoen garraio-gastuak, Iruñetik kanpo bizi badira.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Erradioterapia, kimioterapia edo errehabilitazioko tratamendua hartze aldera Foru Komunitateko ospitale batera joan behar duten Iruñetik kanpoko gaixoen joan-etorriak ordaintzeko proposamena behin baino gehiagotan aurkeztu da Legebiltzar honetan.

Iragan legegintzaldian, Nafarroako Ezker Batuak mozio bat aurkeztu zuen eskubide hori berma zedin. Nafarroako aurrekontu orokor guzti-guztietan zuzenketen bidez saiatu gara beste eskubide bat balitz bezala jaso zedin garraio-zerbitzu hori. Orain arte ezinezkoa izan da halakorik lortzea.

Euskal Autonomia Erkidegoak joan-etorria ordainduko die Osakidetza agindutako tratamendu medikoa hartze aldera ospitalera joan behar duten gaixo kronikoei, hori agintzen duen ekimen bat onetsi baita.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasun Departamentuak Osasunbidearen aginduz osasun zentro batean erradioterapia, kimioterapia edo errehabilitazioko tratamenduak hartu behar dituzten gaixoen garraio-gastuak ordain ditzan, Iruñetik kanpo bizi badira. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du.

Iruñean, 2008ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza-neurrien sistema bat ezar dezan, familiek banda zabaleko internet-konexioak ezartzeko tresnak erosi ahal izateko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita laguntza-neurrien sistema bat ezar dezan, familiek banda zabaleko internet-konexioak ezartzeko tresnak erosi ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza-neurrien sistema bat ezar dezan, familiek banda zabaleko internet-konexioak ezartzeko tresnak erosi ahal izan ditzaten.

Zioen azalpena

Jakintzaaren gizartearen sorrera gizarte-iraultza berri bat ari da eragiten, informazioaren eta jakintzaaren irisgarritasunean oinarritua, baina kontuan

hartu behar da arrisku bat ere badakarrela: desberdintasunek eta bazterkeriak gora egitea.

Une honetan, nafarren % 99,23k du banda zabaleko zerbitzua, baina badira gabeziak ere, "estaldura-zuloen" edo konexio-zerbitzuko "itzalgu-neen" ondorioz. Nafarroako Gobernuaren telekomunikazio-azpiegituren planean hainbat neurri jaso dira "estaldura-zulo" horiek konpontzeko –jarduketa eta sistema bereziak behar dira zulo horiek betetzeko–, baina arazoa haratago doa, banda zabalera konektatze aldera sistema berezi horiek erabili nahi dituzten familiei ere eragiten baitie; izan ere, tresna jakin batzuk erosi behar dituzte (antena-instalazioak eta abar), eta horrek aparteko kostua dakar.

Nafarroako 2008rako aurrekontu orokorretan alderdi sozialistak aurkeztutako zuzenketa bat onetsi zen, banda zabala ororenganatzeko 500.000 euro bideratze aldera. Laguntza horren bidez aukera eman nahi zaie "estaldura-zuloak" dituzten lurraldeetako familiei, gainontzekoek dituzten baldintza beretan eduki ahal izan dezaten banda zabaleko internet-konexioa.

Banda zabaleko internet-konexioa ororenganatzeari helburu, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du laguntza-neurrien sistema bat ezar dezan, familiek banda zabaleko internet-konexioa eduki ahal izateko tresnak erosi ahal izan ditzaten.

Iruñean, 2008ko apirilaren 9an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da protokolo bat ezar dezan arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emateko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita protokolo bat ezar dezan arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena

Arantza bifidoa neurona-hodiaren sortzetiko malformaziorik larriena da bizitzarekin bateragarriak diren malformazioen artean, eta, garun-perlesien ondotik, haurtzaroan ezgaitasun fisikoa eragiten duen bigarren kausa da.

Espanian, uste denez, 10.000 jaioberritik 4k izaten du arantza bifidoa. Datu horiek Nafarroara ekarri gero, 200 pertsona egonen lirarteke kaltetuta.

Arantza bifidoak gure organismoko hiru sistemarik garrantzitsuenei eragiten die:

– Nerbio-sistema zentrala.

– Lokomozio-aparatua.

– Sistema genitourinarioa.

Gaixotasun hori duten pertsonak espezialista desberdinen laguntza behar dute, eta horren ondorioz osasun zerbitzuetara hainbatetan joan beharra dute, horrek dakartzan arazoekin.

Nafarroako Arantza Bifidoaren eta Hidrozefaliaren Elkarrekin Bideko Ama Birjina Ospitaleko arrisku handiko haurdunaldien datu-basean oinarriturik eginiko azterlan baten arabera, 2006 eta 2007an egiaztatu da hedatu egin dela malformazioaren eragina, eta, agian, haurdun gelditu aurreko aldiaren prebentzio sistemetan dagoen defizitari zor zaiola eragina hedatu izana.

Horrenbestez, agerian gelditu dira Osasun Departamentuaren gabezia eta hutsuneak gaixotasun horri konponbidea emateko.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozioa aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du protokolo bat ezar dezan arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emateko aldera, eta gaixo horiek artatzeko koordinatzaileen figura sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arantza bifidoari aurrea hartzeko eta horri buruz informatzeko kanpainak egin ditzan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 10ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, osasun garraioaren kudeaketa edo antolamendu eredu berriari heltzeko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan-mahai bat sor dezan, osasun garraioaren kudeaketa edo antolamendu eredu berriari heltzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, osasun garraioaren kudeaketa edo antolamendu eredu berriari heltzeko.

Zioen azalpena

Osasun garraioaren zerbitzua ezinbesteko zerbitzua da, lehentasunezkoa, osasun arloan. Nafarroako Foru Komunitatearen garraio eredu 90eko urteetakoa da, eta, gure ustez, ez ditu lortzen berehalakotasunaren, erosotasunaren eta gogobetetasunaren helburuak, ez erabiltzaileei ez osasun garraio hori balia dadila agintzen duten fakultatiboei dagokienez ere.

Zerbitzu hori itunen ereduaren bidez ematen da, eta horrek gastu ekonomiko handia dakar eta ez ditu erdiesten erdietsi nahi diren eraginkortasun eta efizientzia mailak.

Sozialisten parlamentu-taldearen iritziz, garraio horren baldintza berrikusi eta bestelako bermeak eskaini beharra dago; horretarako, jakina, egungo eredu birdefinitu behar da, garraio zerbitzua, osasun arloan hain garrantzitsua dena, hobetzeko neurriak hartzea helburu.

Horregatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-mahai bat sor dezan, osasun garraioaren kudeaketa edo antolamendu eredu berriari heltzeko. Lan-mahai hori ondokoek osatuko dute: Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza Nagusia, Lizarrako, Tuterako eta Iruñeko ospitaleetako larrialdietako Zuzendaritza, Osasun Larrialdietako Teknikarien Elkarte eta sindikatuak.

Iruñean, 2008ko apirilaren 10ean

Eleduna: Roberto Jiménez

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen baitu Bigarren Errepublika, Espainian antolamendu politikorako izandako lehen esperientzia demokratiko gisa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Lehena

“Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen du Bigarren Errepublika, Espainian antolaketa politikorako lehen saio demokratiko gisa, bai eta hark gure belaunaldiei utzitako ondare itzela ere.

Bigarrena

Nafarroako Parlamentuak adierazten du askatasun, berdintasun eta anaitasun ideien gidaritzapean gorpuzturiko pentsamendu politiko errepublikarrari dion esker ona.”

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez berretsi baita Gerra Zibilean Nafarroan fusilatutako eta errepresaliatutako pertsonak gogoratzeko, omentzeko eta dagokien ordain morala emateko erabakia, Osoko Bilkurak onetsi zuena.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Legebiltzarreko Osoko Bilkurak 2003ko martxoaren 10ean onetsi zuen erabakia oso-osorik berrestea.

2.- Poza azaltzea onik burutu ahal izan delako monumentu-eskultura bat eraikitzeke ekimena: “Oroimenaren Parkea”, Sartagudan altxatu baita.

3. Nafarroako Parlamentuak, herri nafarraren ordezkari zilegia den aldetik, bozketa unibertsal, zuzen eta sekretu bidez hautatua, adierazten du bere asmo eta borondatea dela erakunde gisa

parte hartzea “Oroimenaren Parkearen” inaugurazio ekitaldian.

4. Nafarroako Parlamentuak, erakunde herritarrei hurbiltzeko asmoari fidel, gertakari haien ezagutza eta oroimena ohoratzeko asmoak bultzatuta, hitzaldi-ziklo bat antolatuko du 2008ko bigarren seihilekoan, gure erkidegoko erakunde akademikoekin batera, Legebiltzarrean berean, “Barneko Fronteari” buruz, izen horrekin ezagutzen baita errepresioaren bidez 3.000 nafar baino gehiago desagerrarazi eta hiltzera eraman zuen prozesua.”

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Unibertsitateak edo Klinika Unibertsitariotik erretirora iragan diren pentsio-hartzaileak artatzeko Osasunbideak eta Nafarroako Unibertsitateak sinatutako kontratuari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitateak edo Klinika Unibertsitariotik erretirora iragan diren pentsio-hartzaileak artatzeko Osasunbideak eta Nafarroako Unibertsitateak sinatutako kontratuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun Batzordean kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Jakin dugunez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kontratu bat sinatu du Nafarroako Unibertsitatearekin, zeinaren bidez Unibertsitate Klinikak artatuko baititu, ezen ez Nafarroako Osasun Zerbitzuak, Nafarroako Unibertsitateak edo Klinikatik erretirora iragan diren pentsio-hartzaileak.

Zerbitzu horrek orobat hartuko ditu Gizarte Segurantzako kartillan jasota ageri diren senide onuradunak.

Hori dela eta, galdera hauei erantzutea nahi dugu:

Zein da Nafarroako Unibertsitatearen eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren artean sinatutako kontratuaren kostua?

Zergatik sinatu da kontratu hori Nafarroako Unibertsitatea entitate pribatuarekin?

Nafarroako Gobernuaren ustez, zenbat pertsonari eraginen dio hitzarmen horrek?

Zer zerbitzu emanen dira, zehatz-mehatz, kontratu horren kariatara?

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Huarte Beaumont andrearen arte bilduma pribatuari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Huarte Beaumont andrearen arte bilduma pribatuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Batzordean ahoz erantzun dezan:

Hedabideen arabera, María Josefa Huarte Beaumontek dohaintzan emanen dio Nafarroako Unibertsitateari arte garaikideko bere bilduma pribatua, zeina Estatuko garrantzitsuenetarikotzat jotzen baita. Horrenbestez, Nafarroan geldituko da, baina ezin izanen da museoan azpiegitura publikoko parte izan, Félix Huarte industrialariaren alabaren ondare artistikoa, Iruñeko ziudadelako arte garaikideko zentro huts eginaren hasikina izan behar zuena: berrogeita hamar bat artelan, Picasso, Oteiza, Rothko, Palazuelo edo Chillida bezalako artistenak. Artelanak Iruñeko campuseko eraikin batean jarriko dira ikusgai, azken hilabeteotan negoziatu eta gutxi barru sinatuko den hitzarmen bati esker.

Horiek horrela, Nafarroa Bai parlamentu-taldek jakin nahi du ea zer zuzemen egin dituen Kultura Departamentuak, bilduma hori gure Foru Komunitateko kulturaren esparru publikoan eskaini ahal izan zedin.

Iruñean, 2008ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Nafarroako Antzerki Sarea abian paratzeari dagokionez udal agintariek duten parte-hartzeari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Antzerki Sarea abian paratzeari dagokionez udal agintariek duten parte-hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Nafarroako Antzokien Sarea dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean ahoz erantzun diezaion.

Nafarroako Antzokien Sarea abian paratzeko urratsak ematen ari da Nafarroako Gobernuak. Udal teknikariek eta sektoreko profesionalen kontrastatzen eta eztabaidatzen ari da antzokien sarearen definizioa. Baina ez du inolako eztabaidarik eta kontrasterik bultzatu udal agintariek.

Antzokien Sarea udal jabegoko antzokietan egin behar dela kontuan hartuta, eta udalak iz-

nen direla programen eta ikuskizunen finantziazioaren zatirik handiena euren bizkar hartuko dutenak, zergatik ez ditu udal agintariak bildu Nafarroako Gobernuak? Dekretuaren onespeneren aurretik udal agintariekin biltzeko asmorik badu?

Eztabaida bultzatzeko prest dago Nafarroako Gobernua?

Iruñean, 2008ko apirilaren 3a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Nafarroako Gobernuak arte eszenikoak bultzatzeko abian jarriko dituen ekimenei buruzkoa.

PATXI TELLETXEAK EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak arte eszenikoak bultzatzeko abian jarriko dituen ekimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko errege-

lamenduan xedatutakoaren arabera, Nafarroako Antzokien Sarea dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean ahoz erantzun diezaion.

Nafarroako Antzokien Sarea abian paratzeko urratsak ematen ari da Nafarroako Gobernua. Udal teknikariekin eta sektoreko profesionalekin kontrastatzen eta eztabaidatzen ari da antzokien sarearen definizioa. Baina ez du inolako eztabaidarik eta kontrasterik bultzatu udal agintariekin.

Antzokien Sareak Nafarroako arte eszenikoen bultzadarako balio behar badu, zein bertze ekimen bideratuko ditu Nafarroako Gobernuak? Sormen lana bultzatzeko programak sendotu eta indartzeko zein neurri hartuko ditu?

Iruñean, 2008ko apirilaren 3a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen hurrengo urteetan antzez-arteetara bideraturiko diru kopurua handitzeko.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen hurrengo urteetan antzez-arteetara bideraturiko diru kopurua handitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko errege-

lamenduan xedatutakoaren arabera, Nafarroako Antzokien Sarea dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean ahoz erantzun diezaion.

Nafarroako Antzokien Sarea abian paratzeko urratsak ematen ari da Nafarroako Gobernuak. Udal teknikariek eta sektoreko profesionalekin kontrastatzen eta eztabaidatzen ari da antzokien sarearen definizioa. Baina ez du inolako eztabaidarik eta kontrasterik bultzatu udal agintariek.

Kultura Departamentuak egindako ikerlan baten arabera, Nafarroako udalek 4 milioi euro baino gehiago bideratzen dituzte antzez-arteetara. Nafarroako Gobernuak 600.000 euro jarriko ditu antzokien sarerako. Kopuru hori handitzeko asmorik ba al du hurrengo urteetan?

Iruñean, 2008ko apirilaren 3a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Nafarroako Gobernuak artista nafarren promoziorako eta zabalkunderako eta publiko berriak bilatzeko dituen proiektuei buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak artista nafarren promoziorako eta zabalkunderako eta publiko berriak bilatzeko dituen proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko errege-lamenduan xedatutakoaren arabera, Nafarroako Antzokien Sarea dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean ahoz erantzun diezaion.

Nafarroako Antzokien Sarea abian paratzeko urratsak ematen ari da Nafarroako Gobernuak. Udal teknikariek eta sektoreko profesionalekin kontrastatzen eta eztabaidatzen ari da antzokien sarearen definizioa. Baina ez du inolako eztabaidarik eta kontrasterik bultzatu udal agintariek.

Zein egitasmo bultzatuko ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroako artisten promozio eta zabalkunderako? Eta publiko berriak bilatzeko?

Iruñean, 2008ko apirilaren 3a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Toki Administrazioiko Departamentuak gauzatu zituen administrazio-ekintzei eta legezketasun kontrolari buruzko ekintzei buruz, Iruñerriko Mankomunitateak Arazuriko biometanizazio planta eraikitze eta abiarazteko hartu zituen hitzarmenei dagokienez.

JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Luis Izco Biarge jaunak aurkeztutako galdera, Toki Administrazioiko Departamentuak gauzatu zituen administrazio-ekintzei eta legezketasun kontrolari buruzko ekintzei buruz, Iruñerriko Mankomunitateak Arazuriko biometanizazio planta eraikitze eta abiarazteko hartu zituen hitzarmenei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioiko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iruñerriko Mankomunitateak, toki entitatea den aldetik, zenbait erabaki hartu zituen Arazuriko biometanizazio plantari buruzko espediente, nahitaezkoa baita, izapidetu eta ondoren planta eraiki eta abian jartze aldera. Orain dela gutxi Auzitegi Gorenak emandako epai irmo baten bidez, Gongorako zabortegiko zaborra tratatu behar zuen plantari buruzko espediente hori gerarazi zen. Departamentuak zer ekintza egin zituen, zerbait egin bazuen, hala administrazio arloan nola legezketasuna kontrolatzekoan, Iruñerriko Mankomunitateak hartu zituen erabaki haiek direla eta?

Iruñean, 2008ko apirilaren 9an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, kirolaren babeserako 2,8 milioi euroko kontusailari buruzkoa.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, kirolaren babeserako 2,8 milioi euroko kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak 2,8 milioi euroko kontusaila bideratuko du "Nafarroako Erresuma. Lur anitz" turismo-markaren bitartez goi mailako kirol taldeak babestera.

Horri buruz, parlamentari honek ondokoak jakin nahi ditu:

Lehen. Zein irizpide daude babesletza horiek banatzeko?

Bigarrena. Zer bide baliatzen da talde horiei aipatu dirulaguntzak helarazteko?

Iruñean, 2008ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

Galdera, 2004tik 2007ra larrialdi zerbitzuetan eginiko egintza medikoen kopuruari buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, 2004tik 2007ra larrialdi zerbitzuetan eginiko egintza medikoen kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Chivite Navascuésék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Ospitaleetako larrialdi zerbitzuetan

1. Zenbat ekintza mediko edo laguntza egin da 2004, 2005, 2006 eta 2007an Nafarroako osasun sare publikoko ospitale bakoitzeko larrialdi zerbitzuetan?

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, A-12 autobidean animaliak sartzen direla-eta eragindako istripuei buruzkoa.

JOSÉ MARÍA VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José María Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, A-12 autobidean animaliak sartzen direla-eta eragindako istripuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José María Vázquez Royok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Galderaren zioak

Donejakue bideko autobia (A-12) 2006ko irailean jarri zen osorik zerbitzuan, eta denbora nahiko iragan da harrezkero, autobia horren funtzionamendua alde guztietatik aztertzeko.

Orain dela gutxi, ordea, autobiatik dabiltzan gidarien segurtasunean eragina duten zenbait akatsen berri izan dugu, afera oso garrantzitsu batean hain zuzen ere. Antza denez, Bideko Autobian mota guztietako animaliak sartzen dira, eta istripu ugari eragiten dute.

Galderaren testua

1. 2007an A-12 autobian horren erruz istripuren bat izan duten gidarietarik zenbatek eskatu dute kalte-ordaina?

2. Zer erantzun eman zaie kaltetutako gidariek aurkeztutako erreklamazioei?

3. Egindako erreklamazioak aintzat hartu baldin badira, nork hartu ditu bere gain gastuak? Zenbat diru ordaindu da 2007an A-12 autobian sartutako animaliek eragindako istripuen ondorioz aurkeztu diren erreklamazioak direla eta? Zenbat erreklamazio daude ebazteko bidean?

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: José M.^a Vázquez Royo

Galdera, Spanair enpresak Iruña-Madril hegaldiak eteteko arrazoi objektiboiei eta erabaki horren aurrean hartuko diren neurriei buruzkoa.

JOSÉ M^a VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José M.^a Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, Spanair enpresak Iruña-Madril hegaldiak eteteko arrazoi objektiboiei eta erabaki horren aurrean hartuko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José María Vázquez Royok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Komunikabideen bidez berriki jakin dugunez, Iruñetik Madrilerako hegaldiak hemendik gutxira eteteko asmoa du Spanairrek. Hori iragarri ondoren, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak adierazi du Departamentuak gaia aztertuko duela, bi aldeen artean hitzartutakoa oinarri.

Egoera hori kezkarria da Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearentzat, nolabaiteko ziurgabetasuna, kalte larria eta era-

gozpenak sortzen baitizkie zerbitzuaren balizko erabiltzaileei; hori horrela, egokia iruditzen zait honako galdera hauek egitea, idatziz erantzun daitezten:

- Zure ustez, zer arrazoi objektibok eragin dute Spanair enpresak Iruñetik Madrilerako hegaldiak hemendik gutxira eteteko erabakia hartzea?

- Spanair enpresak bere kabuz egindako iragarpenaren aurrean, kontuan izanda bi aldeen artean sinatutako kontratuko baldintzak –kontratua indarrean dago oraindik– eta erabakiak nafar herritarrentzat dakarren kalte larria ikusita, kontseilariak zer neurri hartu du edo hartzeko asmoa du?

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: José M.^a Vázquez Royo

Galdera, Xabierko Frantzisko Jatsukoa auditorioaren obrei buruzkoa.**MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Xabierko Frantzisko Jatsukoa auditorioaren obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren karietara Frantzisko Jatsukoa auditorioa eraiki zen Xabierren.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

Lehena. Zein egunetan hasi eta bukatu ziren obrak.

Bigarrena. Obren aurrekontu osoa, eta nola finantzatu ziren.

Hirugarrena. Nor da instalazio horren titularra?

Iruñean, 2008ko apirilaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Osasun Departamentuaren aurreikuspeni buruzkoa, erizain laguntzaile izateko oposizioko lanpostu hutsak aukeratu ahal izateko.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkezturiko galdera, Osasun Departamentuaren aurreikuspeni buruzkoa (erizain laguntzaile izateko oposizioko lanpostu hutsak aukeratu ahal izateko), erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2008ko otsailaren 8ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, jakiteko zenbat diru jaso den 2006an 250 langile baino gehiagoko enpresetatik eta 250 baino gutxiagoko enpresetatik sozietateen gaineko zerga dela-eta.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du jakiteko zenbat diru jaso den 2006an 250 langile baino gehiagoko enpresetatik eta 250 baino gutxiagoko enpresetatik sozietateen gaineko zerga dela-eta.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du jakiteko zenbat diru jaso den 2006an 250 langile baino gehiagoko enpresetatik eta 250 baino gutxiagoko enpresetatik sozietateen gaineko zerga dela eta. Hona erantzuna:

Nafarroan, industria-enpresa izatearen parametroak eta langile-kopuruak ez du baldintzatzen sozietateen gaineko zergaren ordainketa. Hori horrela, sozietateek sozietateen gaineko zergaren aitortzean emandako informazioak ez du balio eskatutako datu horien ustiapen automatikoa eta sistematikoa lortzeko.

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Zangozako osasun etxe ohiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Zangozako osasun etxe ohiari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 12ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Zangozako osasun-etxe zaharrari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eraitsi eginen du osasun-etxe zaharra, eraikin berria abian jartzen denean –datorren urteko lehen hiruhilekoan–.

2.- Aurreko legegintzaldian Zangozako Udaleko arduradunekin izandako elkarrizketetan adostu bezala, eta kontuan izanik egungo osasun-etxea udalaren jabetzapekoa dela, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2005eko urriaren 3an idatziz eskatu zion Zangozako Udaleko alkateari osasun-etxe berriaren proiektuan zaharraren eraispena sar zezan. Alkateak baiezkoa eman zion idatziz, 2005eko urriaren 13an.

Osasun-etxe berria eraikitzeke lizentzia 2006ko irailaren 22an eman zen, eta beraz, egungo eraikinaren eraispena jasotzen du.

3.- Osasun-etxe berria amaituta dago. Eguntan hornitzen hasiko dira eta aurreikusita dago datorren urteko lehen hiruhilekoan abian jartzea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko abenduaren 31n

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer egiteko asmoa duen Leitzako Amazabal institutuaren ondoko eraikinarekin.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak zer egiteko asmoa duen Leitzako Amazabal institutuaren ondoko eraikinarekin.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak zer egiteko asmoa duen Leitzako Amazabal institutuaren ondoko eraikinarekin.

– Zertarako erabili asmo du Nafarroako Gobernuak eraikin hori?

Gaur egun, beheko solairuan daude lantegi bat eta DBHko 4. mailako curriculum-aniztasuneko gela bat.

Gainerako eraikina erabili ahal izateko, beharrezkoa izanen da eraikin hori berritzea, izan ere badira sendotu beharreko egurrezko forjatu edo habe batzuk.

– Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du dagoen herriko udalari lagatzea eraikin hori?

Nafarroako Gobernuak ez du asmorik eraikina Leitzako Udalari lagatzeko. Hezkuntza Departamentuak mantendu eginen du, ikastetxeak edo institutuak izan litzakeen toki-beharrei erantzuna eman ahal izateko.

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Mindak Europar Batasuneko zuzentarauen arabera tratatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Mindak Europar Batasuneko zuzentarauen arabera tratatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko abenduaren 12ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du mindak Europar Batasuneko zuzentarauen arabera tratatzeari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Mindak behar bezala tratatzeko zer aurreikuspen orokor dauden Nafarroan, zer neurri hartu dituen Gobernuak horretarako eta zer neurri hartzeko asmoa duen.

Nafarroan simaurra (likidoa nahiz solidoa) kudeatzeko dagoen sistema nagusia da hori ongari gisa erabiltzea. Gero, soroetan zuzenean aplikatzen da horretarako sasoiaren denean: landare-hazkunde goreneko sasoiaren bertan –laborantzak horretarako aukera ematen badu– edo sasoi horren inguruan.

Simaurren kudeaketa hori ustialeku bakoitzera ko zehazten da Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak onarturiko simaur kudeaketako plan batean, ingurumen-baimen integratuaren

edo jarduera sailkatuetarako lizentziaren nahitaezko izapidearen bitartez.

Abeltzaintzako instalazioek Nafarroako Foru Komunitatean ingurumenaren aldetik bete beharreko baldintza teknikoei buruzko ekainaren 23ko 148/2003 Foru Dekretuak ezartzen du bere bigarren xedapen iragankorrean, orobat, 2007ko urriaren 1a baino lehen, 20 ALUtik gorako edukiera duten abeltzaintza instalazioetako titularrek simaurra ekoizti eta kudeatzeko plana aurkeztuko dutela Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan, foru dekretu horretan adierazitakoari jarraituz.

Departamentua lanean ibili da ondoko helburuekin: sektore horren eskura jartzea kudeaketa plan egokiak egiteko irizpide eta metodologiak, eta plan horiek egiteko tresna egokiak ematea. Horretarako, ondokoen laguntza jaso du: ITGarena, inplikaturako beste teknikari batzuen eta abeltzainen sindikatuena.

Lan hori gauzatzeko, internet bidezko tresna informatiko bat jarri da eskuragarri. Hori horrela, ustialekuetako aholkulari teknikariek aukera izanen dute kudeaketa planak aurkezteko. Plan horiek departamentuko teknikariek balioztatuko dituzte. Etorkizunean, simaurren aplikazioari buruzko Erregistro Liburua ere mantentzeko aukera ematen du – derrigorrezkoa da ustialekuentzat hori mantentzea–.

Tresna horiek diseinatu eta abian jarri behar izateak atzeratu egin du horiek sektorean ezartzea. Beraz, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak honakoa proposatu du: Nafarroako Gobernuak goian adierazitako epea luzatzea, 2008ko egun berera arte.

Nekazaritzaren alorrean simaurraren balorizazio hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da harreman estua egotea nekazaritza eta abeltzaintza sektoreen artean. Iparraldeko behi ustialekue-tan harreman hori badago, baina ez da halakorik gertatzen beste espezieen ustialeku gehienetan. Departamentuak denbora luzez jardun du proiektuak egiten, simaurrak ongari gisa erabiltzeak dakartzan onurak erakusteko. Horren helburua da balorizazioaren irtenbide hori hinki-hankarik gabe ezartzea.

2.- Zer aurreikuspen dituen Nafarroako Gobernuak mindak tratatzeko planta bat Zangozan jartzeari buruz.

Une honetan, Agezan hondakinen kudeatzaile bat ezartzeko jarduera sailkatuaren espedientea izapidetzen ari da. Honakoa litzateke bere zeregina: simaurrak, lokatzak eta lastoa nahastea, gero-ra soroan aplikatzeko. Instalazioa hormigoizko xafla bat izanen da (60 m x 80 m). Biltegi bat izanen du lixibiatuak jasotzeko eta nahasgailu bat, prozesua egiteko. Sustatzaile partikular baten ekimena da.

Hondakinak biltzeko batez besteko edukiera 200 tonakoa izanen da, gutxi gorabehera, eta urtean 15.000 tona lokatz eta 15.000 tona simaur tratatuko ditu.

Sustatzailearekin elkarrizketatu ondoren, bada-kigu horrek eskari bat aurkeztu zuela, Zangozan antzeko planta bat ezartzeko. Baina departamentuak ez du espediente horri buruzko txostenik jaso.

3.- Horretarako zer zuzemen egin dituzten partikularrek, profesionalek eta erakundeek.

Ustialekuak metatzen diren eremuetan zuzemenak egiteko, simaurren kudeatzailea deiturikoa agertzen ari da. Bere zeregina honakoa da: ustialeku ezberdinetako simaurra jaso eta kudeaketa plan bateratu batean aurreikusitakoa bete. Normalean, udalerrri bereko abeltzainek eraturako taldeak izan ohi dira, beren simaurrak kudeatzeko eta nekazaritzaren alorrean balorizatzeko elkartzen direnak. Kasu batzuetan, simaurren kudeatzaile horiek dira normalean beren finkan beste abeltzaintza ustiategi batetik (edo batzuetatik) datorren simaurra aplikatu dutenak.

Simaurren kudeatzaileen betebeharra da simaurrak kudeatzeko plana aurkeztea eta horri dagokion erregistro liburua betetzea eta entregatzea.

Gaur egun, honako hauek dihardute simaurren kudeatzaile lanak egiten: Villafrancako abeltzainen elkarte (GAPORVI) –eskualde horretan zerrikiak ekoizten dituzten guztiak biltzen ditu–, Buñuelgo abeltzainen elkarte, Gestor de purines Arakil (eskualdean zerrikiak eta behikiak hazten dituzten bi granja biltzen ditu), abeltzain partikularrak.

Sustatzaile batzuk planteatzen ari dira hondakinak tratatzeko plantak ezartzea; adibidez, konpostaje eta biometanizazioa. Simaurrekin diharduten hondakinen kudeatzaileen zenbait baimen eman dira jadanik.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko abenduaren 20an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Klima aldaketa aztertzeko lan-taldearen barne-funtzionamendurako arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Klima aldaketa aztertzeko lan-taldeak 2008ko apirilaren 7an harturiko erabakiaren berri duela adieraztea. Erabaki horren bidez "Klima aldaketa aztertzeko lan-taldearen barne-funtzionamendurako arauak" onetsi dira.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Klima aldaketa aztertzeko lan-taldearen barne-funtzionamendurako arauak

Lehena. Klima aldaketa aztertzeko lan-taldearen helburua da txosten bat egitea, ondorioak aterako dituen Nafarroan klima aldaketaren aurka hartutako neurriei buruz.

Behin txostena eginda, Legebiltzarreko Mahaiari igorriko zaio, eta hark batzordeko kideei helaraziko die, eztabaidatu eta bozkatzeko.

Bigarrena. Horra lan-taldea osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

Faustino León Chivite jauna
(UPN parlamentu-taldea)

Ordezkoa: Josefina Bozal Bozal andrea

Aitor Etxarri Pellejero jauna
(Nafarroa-Bai parlamentu-taldea)

Ordezkoa: Txentxo Jiménez Hervas jauna

María Gracia Iribarren Ribas andrea
(SPN parlamentu taldea)

Ordezkoa: José M.^a Vázquez Royo jauna

Jose Andrés Burguete Torres jauna
(CDN foru parlamentarien elkarte)

Ordezkoa: Juan Cruz Alli Aranguren jauna

Ion Erro Armendáriz jauna
(IUN-NEB foru parlamentarien elkarte)

Ordezkoa: Ana Figueras Castellano andrea

Hirugarrena. Lan-taldeak lehendakaria hautatu du, eta, kasua bada, lan-taldeko beste kide batek ordezkatu ahalko du hura. Lan-taldeari laguntzen dion legelaria izanen da lan-taldeko idazkari.

Laugarrena. Lan-taldeak boto ponderatuen sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horretarako, parlamentu-taldeen ordezkariak beren parlamentu-taldeen kideak bezainbat boto edukiko dituzte.

Bosgarrena. Lan-taldeak laguntza eskatu ahaliko dio Nafarroako Gobernuari, eta, Legebiltzarreko Lehendakariaren bidez, kargu eta funtzionario eskudunak lan-taldera etor daitezen eskatu ahalko du, bai eta beharrezkoak diren txostenak egin daitezen ere.

Lan-taldeak lan egiteko plana ezarriko du, eta lan-taldearen lanak behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen dituen agerraldi eta jarduerak finkatuko ditu. Plan hori Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraziko dio.

Seigarrena. Lan-taldeak agindu zaion lana bukatu arte egingen du lan, eta lan hori 2008ko azaroaren 14rako bukatu beharko du.